

AURKIBIDEA

SARRERA	4
1. AZTERKETAREN EREMUA	6
1.1 OHAR METODOLOGIKOA	6
1.2 AZTERKETA EREMUAREN DESKRIBAPENA.....	6
2. METODOLOGIA	8
2.1 GALDETEGIA	8
2.1.1 Datu orokorrak.....	8
2.1.2 Eskaintza orokorra	8
2.1.3 Euskararen ezagutza	8
2.1.4 9-10 adin tarteko eta 13-14 adin tarteko eskaintza	9
2.1.5 Euskarazko eskaintza	9
2.1.6 Hizkuntza-paisaia	9
2.1.7 Euskararen sustapenarekin zerikusia duten galderak	9
2.2 EZTABAIDA TALDEAK	10
3. GALDETEGIA.....	11
3.1 GALDETEGIEN HEDAPENA	11
3.2 DATUEN HUSTUKETA	11
3.2.1 Datu orokorrak.....	11
3.2.2 Eskaintza orokorra	11
3.2.3 Euskararen ezagutza	12
3.2.4 9-10 adin tarteko eskaintza.....	12

3.2.5	13-14 adin tarteko eskaintza	14
3.2.6	Euskarazko eskaintza	15
3.2.7	Hizkuntza-paisaia	16
3.2.8	Euskararen sustapena	19
4.	EZTABAIDA TALDEAK.....	22
4.1	DONEZTEBEKO EZTABAIDA TALDEA.....	22
4.1.1	Zertan ari gara eta zer zailtasun dugu?.....	22
4.2	IRUÑEKO EZTABAIDA TALDEA	24
4.2.1	Zertan ari gara eta zer zailtasun dugu?.....	24
4.3	IRURTZUNGO EZTABAIDA TALDEA	28
4.3.1	Zertan ari gara eta zer zailtasun dugu?.....	28
5.	ONDORIOAK.....	31
5.1	HIZKUNTZA PAISAIA	31
5.2	ESKAINZA	32
5.2.1	Eskaintza haur eta gazteen artean.....	32
5.2.2	Euskarazko eskaintza orokorra	34
5.3	PRESTAKUNTZA, BALIABIDEAK ETA HARREMANAK	35

SARRERA

Nafarroako Gobernuak *Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019)* onetsi zuen 2017ko urtarrilean. Plan horren sarrerek honakoa dio:

“Euskara Nafarroako mintzaira berekia da, hizkuntza gutxitua halere, azken mendeetan gizartean zuen lekua galduz joan dena eta egun berreskurapen prozesuan dagoena. Horregatik, babesa eta sustapena behar ditu, Nafarroako herritar guztien ondarea izanda, guztiendako onuragarria eta aberasgarria izateko.”

Nafarroan 2016ko Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 16 urtetik gorakoen artean egina, % 12,9 euskal hiztuna da, % 10,3 badaki zerbait baina ez da jarotasunez hitz egiteko gai, eta % 76,7k ez daki euskaraz.

Eremuaren arabera, baina, ezagutza tasak oso desberdinak dira:

	Eremu euskalduna (%)		Eremu mistoa (%)		Eremu ez-euskalduna (%)		Nafarroa (%)	
	2011	2016	2011	2016	2011	2016	2011	2016
Euskaldunak	59,3	61,1	9,8	11,3	2,3	2,7	11,7	12,9
Euskaldun hartzailak	12,6	13,4	9,6	12,0	3,1	6,8	7,5	10,3
Erdaldunak	28,1	25,5	80,6	76,8	94,6	90,5	80,8	76,7

(Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016)

16 eta 24 urte bitarteko taldean handitu da gehien euskararen gaitasuna. Talde horretan eremu euskaldunean % 56,7koa zen 1991 eta % 89,6koa 2016 urtean, horrek esan nahi du igoera portzentuala 32,9koa dela. Eremu mistoan, % 7,1etik 1991 urtean % 27,3ra pasa zen 2016an, hori portzentualki 20,2 puntu dira.

Ikus daitekeenez, euskararen ezagutzan aurrera egiten ari da Nafarroan. Baina hizkuntza bat normalizatzeko, ez nahikoa herritarrek hizkuntza jakitea. Erabiltzeko aukerak izan behar dituzte. Eta Euskararen Plan Estrategikoaren lehen ardatzak, hain zuzen ere, gizarte erabilerari heltzen dio. Hau jasotzen da bertan:

“Herritarrek euskara erabiltzeko aukerak eta espazioak behar dituzte, bai eta euskarazko produktuak eta baliabideak ere, eta ardatz honetako helburuek horra jotzen dute,

hizkuntzarako erabilera uneak eta guneak sortu eta indartzera, batik bat haur-gazteei zuzendutako gizarte jardueretan. Bestalde, euskaldun hartzaileak berretu dira eta horiek aktibatzeke eta euskarazko komunikazioetan parte harrarazteke bideak jorratu beharrean gaude.

Azken hamarkadetan euskaraz dakiten herritarren kopurua hazi da (belaunaldi gazteetan batik bat) eta horrek euskaraz gizartean duen presentzia handitzea ekarri behar du. Hala izan dadin, hiztunek ez dute euskaraz mintzatzeko traba, eragozpen nahiz arazorik topatu behar. Hala bada, euskararen gizarte bizitasuna hauspotzeko, euskaldunei arlo guztietan mintzaira erabiltzeko aukerak sortu behar zaizkie.”

Helburu hori betetzeko planteatzen diren helburu espezifikoaren artean, bik bete betean jotzen diote Kirolaren eremuari:

- a) Euskarazko jardueren eskaintza handitzea, hizkuntzaren gizarte erabilera aktibatzeke.
- b) Eskolaz kanpoko eta aisialdi antolatuko arloaren eraginkortasuna handitzea euskaraz eskolaturiko haur eta nerabeen artean, eta euskarazko eskolazetik datozen gazteen artean euskararen erabilera areagotzeko.

Kezka horretatik abiatuz eta aipatu helburua betetze bidean, 2017ko apirilean “Kirola eta euskara, hausnarketak eta erronkak” jardunaldiak antolatu zituzten Nafarroako Gazteria eta Kirol Institutuak eta Euskararen Nafar Institutua-Euskarabideak elkarlanean. Bertatik eratorri zen Nafarroan egiten den kirol eskaintzan euskaraz duen egoera ezagutzeko beharra, edo eskakizuna. Bada, horri erantzun nahian egindako azterketa lana da esku artean duzuen. Jarraian ikusiko dugunez, azterketa lan honen dimentsioa mugatua da, eta lehen hurbilpen baterako egin dezakeen ekarpenari erreparatu behar zaio gehiago, bertatik ondorio orokorrak egiteko baino. Edozein kasutan, azterketa honek bi ekarpen nagusi egiten dituela esan genezake:

- Euskara kirol eskaintzan zertan den marraztea, neurri batean bada ere.
- Kirolean euskara sustatzeko beharrak, zailtasunak eta lantzeko bideak antzematea

1. AZTERKETAREN EREMUA

1.1 OHAR METODOLOGIKOA

Ezertan hasi aurretik, garrantzitsua da egin den datu bilketa honen neurria hartzea, eta bertatik eratortzen diren ondorioak ere behar bezala aztertzea. Izan ere, argi izan behar da metodo kuantitatiboan bidez lagin estatistiko bat aztertuta, unibertso oso bat erakustea nahi dela. Metodo hauek unibertso oso handietarako pentsatuta daude (gero eta handiagoa, hobe).

Ikerketa honek, ordea, GeoGebra 1000 unitateko/entitateko unibertso bat dauka, estatistikaren ikuspegitik, txikia. Ondorioz, lagin handia eskatzen du: 278 (% 95eko konfiantza % 5eko errore marjina) eta 800 artekoa (% 99ko konfiantza % 2ko errore marjina), konfiantza maila eta errore marjinaren arabera.

Aintzat hartuz galdetegia 123 entitateri helarazi zaiola (jarraian ikusiko dugu nola hedatu den), ezin dugu esan estatistikoki adierazgarriak direnik unibertso osorako eta ezin dugu ziurtatu lagin honek unibertso osoa ordezkatzeko duenik.

1.2 AZTERKETA EREMUAREN DESKRIBAPENA

123 eragileko zerrenda osatu da azterketa egiteko: 91 elkarte eta 32 udal. Guztiak ere eremu euskaldun eta mistokoak dira (eremu ez euskaldunera ez da azterketa hedatu, aurreikusiz euskarazko kirol eskaintza urria dela). Alegia, Nafarroako biztanleen % 9 eremu euskaldunetan eta % 57 eremu mistoan bizi dela aintzat hartuz, azterketaren fokua biztanleriaren % 66 biltzen duen eremuan jarri da.

Bestalde, datu bilketa kopuru mugatu baten artean egin da. Aintzat hartu behar da unibertso osoaren kopurua:

	OROTARA	EREMU EUSKALDUNA+MISTOA	GALDETEGIA BIDALI ZAI		GALDETEGIA ERANTZUN DUTE	
UDALERRIAK	272 ¹	182	32	% 18	21	% 12
ELKARTEAK	1.819 ²	1.593	91	% 5,7	47	% 2,9

¹ Iturria: Nafarroako Gobernuak.

² Kopuru horrek Nafarroako Kirolaren Institutuan errolatutako elkartei egiten die erreferentzia. Kopuru hori ez dago eguneratuta. Kirol institutuaren estimazioa da erdiak ez daudela aktibo.

Udalak hautatzeko irizpidea, Kirol Zerbitzua eta Euskara Zerbitzua, biak, edukitzea izan da. Azterketa eremua mugatua zenez kopuruan, lehentasunezko zat jo da udal horiek aztertzea (udal txikien kasuan, zerbitzu horiek mankomunatuta zituztenak hautatu dira). Izan ere, euskararen normalizazioaren ikuspegitik aisian euskara sustatzea giltzarrizkoa izanik, beharrezko eta interesgarri jotzen da kirol eskaintzan euskararen presentzia areagotzea. Eta horretarako aukera handiagoak aurreikusten dira bi zerbitzu horiek dituzten Udaletan gauzatzea, besteetan baino. Bi zerbitzu horien arteko harreman eta elkarlana ezberdina da tokian toki. Baina elkarlan hori sustatu beharrekoa dela argi ikusirik, galdetegia elkarlanean osatzeko eskaera bideratu zaie udal horietako teknikariei.

Elkarteei dagokienez, Euskarabideak eta Kirol Institutuak adostu dute galdetegia zein elkarteri bidali. Elkarteak horiek kokatuta dauden herrien perfila anitza da. Landa den udalerrri handiena Iruñea (197.138 biztanle) da, eta txikiena Gartzaron (81 biztanle). Landa eremutik hirigunera aztertu dira, eta ondorioz, kirol elkarte mota ezberdinen datuak jaso dira. Esate baterako, kirol diziplina gutxien eskaintzen duten elkarteak diziplina bakarra eskaintzen dute, eta 15 diziplinatik gora eskaintzen duten elkarteak ere antzeman dira (bereziki Iruñerrian kokatzen dira hauek).

2 . METODOLOGIA

Bi bide landu dira datuak jasotzeko: galdetegia eta eztabaida taldeak.

2.1 GALDETEGIA

Online galdetegi bat betetzea eskatu zaie 123 eragile horiei. Galdetegia betetzeko epea hilabetekoa izan da: irailaren 26tik urriaren 26ra.

Galdetegiaren lehen helburua datuak jasotzea izan da. Baina galdetegiaren bidez lan pedagogikoa egitea ere helburutzat joa da. Alegia, kirol eremuan ari diren eragileei haien buruaren euskararen argazkia egitea eskatzean, euskarak haienean duen tokiaz edo toki ezaz hausnartzea ere bilatu da. Galdetegiak atal hauek zituen:

2.1.1 Datu orokorrak

Elkartearen izena, herria, harremanetarako pertsona eta bazkide kopurua.

2.1.2 Eskaintza orokorra

Atal honetan egiten den kirol eskaintzaren berri ematea eskatu da, zein hizkuntzatan eskaintzen den aintzat hartu gabe.

Kontua izanik tamaina ezberdinetako eragileek bete behar zutela galdetegia, datuak jasotzeko modua sinplifikatu nahi izan da. Izan ere, tamaina handikoei eskaintza xehe mehe ematea eskatzeak ahalegin handia eskatuko zuela aurreikusiz (Udalak edo 9.000 bazkide dituzten kirol elkarteak, esate baterako), eskaintza orokorrean datu absolutuak eskatu dira, kirol diziplinaka.

Atal honetan partaideen euskararen ezagutzaz ere galdetu da. Datu hori ezagutzen ez bazen, ez da eskatu galdetegia osatzeko berariaz jasotzea. Aurreikusten zen kasu gehienetan datua ez zela jasota egongo, baina galdera egin nahi izan da hausnarketa eragiteko.

2.1.3 Euskararen ezagutza

Nafarroan gaur gaurkoz ez dago erakundeetako kideen hizkuntzaren ezagutza modu sistematiko eta orokorrean jasotzeko biderik (ez kirolean, ezta beste eremu batzuetan ere). Salbuespena dira izen emate prozeduretan, esate baterako, euskararen ezagutza jasotzen duten eragileak. Errealitatea hori izanik, euskararen ezagutzaz galdetu dugunean soilik zuzendaritza kideen eta monitore/entrenatzaileen euskararen ezagutzagatik galdetu dugu. Alde batetik, bi figura horiek kirol elkartearen dinamikan duten erreferentzialtasunagatik: gainerako kideekin, baita kanpoko eragileekin harremanetan aritzean, elkartearen ordezkari

gisa. Bestetik, figura horien kopurua mugatuagoa denez, euskararen ezagutzari buruzko datuak aurrez jaso gabe egonda ere, galdetegia osatzean datu hori jasotzeko ahalegina gauzagarria zela aurreikusi zelako.

2.1.4 9-10 adin tarteko eta 13-14 adin tarteko eskaintza

Adin tarte horretan dagoen eskaintza taldeka eta hizkuntzaren arabera jasotzea eskatu da. Datu bilketa errazteko eskaintza orokorraren datu absolutuak jaso badira ere, adin tarte hauetan eskaintza xehe jasotzea eskatu da. Horren arrazoa da azterketa zabalago batean adin tarte horri buruzko datuak jasotzen ari direla. Interesgarritzat jo zen azterketa horri ekarpena egitea adin tarte hauetan fokua jarritz.

2.1.5 Euskarazko eskaintza

Euskaraz egiten den eskaintza xehe jasotzea eskatu da. Kirol diziplina, adin tarte eta parte hartzaile kopurua jasotzea eskatu da.

2.1.6 Hizkuntza-paisaia

Hizkuntza-paisaia osatzen dute oinarrizko euskarrien azterketa xumea egitea eskatu da. Ikusgarrien direnak edo hedapen handienekoak direnak baino ez dira aztertu. Atal honetaz galdetzearekin egoera zertan den ezagutu nahi izan da. Baina hausnarketa ere eragitea izan da helburua. Izan ere, egunero-egunero erabiltzen diren euskarriak maiz gaztelania hutsean daude, eta horren kontzientziarik ez dago. Erakundeek herritarren aurrean proiektatzen duten irudian eta euskarari aitortzen zaion estatusen hizkuntza-paisaiak duen eragina aintzat hartuz, atal hori ere aztertzea erabaki da.

2.1.7 Euskararen sustapenarekin zerikusia duten galderak

Atal hau soilik kirol elkarteei erantzutea eskatu zaie. Honen bidez euskararen sustapenean zer urrats eman nahi den, horretarako zer laguntza mota behar den eta Kirol Institutuarekin harreman euskaraz egin nahi den ezagutu nahi izan da.

2.2 EZTABAIDA TALDEAK

Hiru eztabaida talde egin dira, hiru gune geografiko ezberdinetan:

- Urriaren 16an, Donezteben (Bortziriak, Baztan, Malerreka)
- Urriaren 17an, Iruñean (eremu mistoko herriak)
- Urriaren 18an, Irurtzunen (Leitzaldea, Larraun, Ultzama, Sakana)

Eztabaida taldeen iraupena ordu eta erdikoa izan da. Saioen helburua eztabaida taldeetan parte hartzen zutenen arteko harremana eta elkar ezagutza sustatzea izan da, alde batetik. Bestetik, eragileek haien kirol jardueran euskara sustatzeko dituzten aukerak eta zailtasunak identifikatzea. Horretarako, saioetara kirol elkarteetako ordezkariak, kirol zinegotziak, udaletako euskara teknikariak eta udaletako kirol teknikariak gonbidatu dira.


Hiru atal landu dira:

- Norberaren aurkezpena: nondik datozen eta zer eskaintza duten.
- *Zertan eragiten duzu/eragin nahiko zenukeen?* Lau ataletan: idatzizkoa, eskaintza, barne funtzionamendua, bestelakoak.
- *Zer behar/arazo daukazu euskaraz jarduteko?* Lau ataletan: idatzizkoa, eskaintza, barne funtzionamendua, bestelakoak.

3. GALDETEGIA

3.1 GALDETEGIEN HEDAPENA

Orotara 123 galdetegi bidali dira. Hona hemen, zer banaketa egin den:



Galdetegia bete dutenena artean, hau da banaketa:



3.2 DATUEN HUSTUKETA

3.2.1 Datu orokorrak

Elkarteen artean (Udalak kanpo utzita), bazkide gutxien dituen taldeak 50 ditu, eta gehien dituenak 2.800.


3.2.2 Eskaintza orokorra

Galdetegia erantzun duten Udal eta kirol elkarteek **1.202 jarduera talde eta 19.109 partaide** barnebiltzen dituzte. Eskaintzen diren kirol diziplinei dagokienez, 28k kirol diziplina bakarra eskaintzen dute, eta 40k diziplina bat baino gehiago.

Eragileei galdetu zaie eskaintza egiten duten **taldeetako parte hartzaileen artean, zenbatek dakien euskaraz**. Eremu euskaldunean 44 eragiletik 34k adierazi dute datua jasota dutela (% 77ak). Eremu mistoan, aldiz, 24 eragiletik 12k eman dute datua (% 50). Eta bi kasutan jaso da haurren adin tartean ezagutza jasota dutela, eta helduen artean ez.

3.2.3 Euskararen ezagutza


Entrenatzaile edo monitoreei dagokienez, hauek dira kopuruak:



Zuzendaritza kideen inguruan emandako datuak oso desberdinak izan dira. Kasu batzuetan bazkide kopuru osoa eman da zuzendaritza kide modura, eta zenbaitetan ezagutza daturik ez da jaso. Hori dela eta, ez da atal horretako datu orokorrik atera.

3.2.4 9-10 adin tarteko eskaintza

Datuetan sartu aurretik, argitze bat egin nahiko genuke. Eskaintzaz galdetzean, eskaintza zein hizkuntzatan egiten duten adierazteko hutsunea utzi da galdetegian. Bertan elkarrekin eta udalek beraiek adierazi behar zuten euskaraz edo gaztelaniaz egiten duten. Bada, taldearen hizkuntza zein den adierazteko orduan “*ele bitan*” aukera ere agertu da. Ez dakigu, ordea, “*ele bitan*” aritzen direla esaten dutenean, nola funtzionatzen duten.



Eremu euskaldunean % 82 da euskaraz, % 12 *ele bitan* eta % 6 gaztelaniaz. Aipamen berezia duten kasuak hauek dira:


- Taldekide guztiak euskaldunak izan ez, baina **gehiengoa euskalduna denean, taldeak euskaraz funtzionatzen du** 5 kasutan. Egoera berdinean, talde batek *ele bitan* funtzionatzen du. Kirol diziplinak hauek dira: 2 saskibalo talde, eta talde bana pilota, igeriketa eta futbola.
- ***Ele bitan* funtzionatzen** duten beste 3 taldeen kasuan, taldekide guztiak edo ia guztiak dira euskaldunak. **Monitoreen hizkuntza gaitasunari dagokionez**, 2 kasutan monitore bat baino gehiago aritzen da, eta **guztiak ez dira euskaldunak** (hortaz, norekin aritzen diren hizkuntza batean edo bestean ari dira). Beste kasuan, monitoreak euskaraz pixka bat dakiela (“se defiende”) adierazi da. Kirol diziplinari dagokionez, 2 futbolekoak eta bestea hipika.
- **Gaztelaniaz funtzionatzen** duten bi taldeetan egoera desberdina da. Batean **taldekide guztiak eta entrenatzailea euskaldunak izanik ere, taldeak gaztelaniaz funtzionatzen du.** Gaztelaniazko beste taldearen kasuan, ez dakite taldekideen artean zenbat euskaldun dagoen, eta entrenatzailea erdalduna da. Kirol diziplinari dagokionez, biak futbola.

Eremu mistoan % 18 da euskaraz, % 12 *ele bitan* eta % 70 gaztelaniaz. Aipamen berezia duten kasuak hauek dira:

- ***Ele bitan* eskaintzen** diren bi taldeetako monitore/entrenatzaileak euskaldunak dira. Taldekideei dagokionez kasu batean 8tik 6 dira euskaldunak, bestean 18tik 9.

- **Gaztelaniaz** aritzen diren taldeetako monitoreen artean soilik batek daki euskaraz. Taldekideei dagokionez, 8 taldetan ez dute ezagutza daturik. Beste lauetan, taldekideen euskaldun kopurua erdia baino gutxiago da.
- Kirol diziplinak ez dauka eragin esanguratsurik.

3.2.5 13-14 adin tarteko eskaintza



Ereku euskaldunean % 62 euskaraz da, % 23 ele bitan eta % 15 gaztelaniaz. Aipamen berezia duten kasuak hauek dira:

- Taldekide guztiak euskaldunak izan ez, baina gehiengo euskalduna denean, taldeak **euskaraz funtzionatzen** du 4 kasutan (2 pilota talde, 1 futbola, 1 saskibaloia).
- **Ele bitan funtzionatzen** duten taldeen kasuan, badira lau talde taldekide guztiak euskaldunak dituztenak: 3 kasutan monitoreetako batek euskaraz ez dakielako (pilota, hipika eta futbola), baina kasu batean entrenatzailea ere euskalduna da (futbola). Bestalde, bi taldekide ele bitan funtzionatzen du taldekide ia guztiak euskaldunak izanik (talde horietako batean bitan entrenatzaileetatik bat erdalduna delako. Beste taldeko entrenatzaileak "ulertzen" duela adierazi da): rugby eta saskibaloia talde bat, eta txirrindularitza talde bat.
- **Gaztelaniaz funtzionatzen** duten bost taldeetatik 4 futbol taldeak dira, eta bat *zumba* taldea. Futboleko kasu batean taldekide guztiak bat izan ezik euskaldunak dira, baina entrenatzaileek ez dakite. Beste bi taldetan ia denak euskaldunak dira eta entrenatzaileek badakite, baina gaztelaniaz funtzionatzen da. Talde batean entrenatzaileak ez daki eta ez dakite zenbat taldekide euskaldun dagoen. *Zumbaren* kasuan, taldekide guztiak euskaldunak dira, baina monitoreak ez daki euskaraz.

Eremu mistoan % 7 da euskaraz, % 7 ele bitan, eta % 86 gaztelaniaz. Aipamen berezia duten kasuak hauek dira:

- Ele bitan eskaintzen den taldean monitore/entrenatzaileak euskalduna da. Taldekideei dagokienez kasu batean 8tik 6 dira euskaldunak.
- Gaztelaniaz aritzen diren taldeetako monitoreen artean soilik hiruk dakite euskaraz. Taldekideei dagokienez, 9 taldetan ez dute ezagutza daturik. Beste hiruetan, taldekideen euskaldun kopurua erdia baino gutxiago da.
- Kirol diziplinak ez dauka eragin esanguratsurik.

3.2.6 Euskarazko eskaintza

Jarraian emango diren datuek aditzera ematen dutena da, euskarazko eskaintza egiten den. Alegia, nahikoa da jarduera bakar bat euskaraz eskaintzea, baiezkoa adierazteko. Horrek ez du esan nahi, beraz, eskaintza guztia euskaraz egiten denik, baizik eta egiten den eskaintzan, euskaraz ere eskaintzen dela.

Honakoa argituta, erantzun duten eragileen artean, eremu euskaldunean % 89k egiten du euskarazko eskaintza, eta mistoan % 54k.

EUSKARAZKO ESKAINTZA



Euskarazko eskaintza egiten dutenei erreparatuz gero, eremu mistoan udalek egiten dute euskarazko eskaintza handiagoa elkarretek baino.

EUSKARAZKO ESKAINTZA: UDALAK



EUSKARAZKO ESKAINTZA: ELKARTEAK



Adin tarteari dagokionez, egiten den euskarazko eskaintza nagusiki haur eta gazteen artean egiten dela ikus daiteke, batetik, eta bestetik proportzioan eskaintzarik handiena adin tarte horietan dagoela, ere bai.

Galdetegian elkarteei galdetu zaie euskara zein eremutan emendatu nahiko luketen. Besteak beste, eskaintzan areagotuko luketen galdetu zaie. Eremu euskaldunean **euskaraz eskaintzarik egiten ez duten 6 elkarteetatik 4k erantzun dute ez dutela euskarazko eskaintza handitu nahi. Eremu mistoan, aldiz, euskarazko eskaintzarik egiten ez duten 10 elkarteetatik 6k ez dute handitu nahi euskarazko eskaintza.** Interesgarria litzateke jakitea zer dagoen ezezko horien atzean.


3.2.7 Hizkuntza-paisaia

Atal honetan hizkuntza-paisaiari dagozkion ageriko euskarriak zein hizkuntzatan dauden galdetu da. Datuak bi taulatara ekarri ditugu. Eremu euskalduneko erantzunak batetik, mistokoak bestetik.

EREMU EUSKALDUNA	Nagusiki euskaraz	Ele bitan	Nagusiki gaztelaniaz
Erantzungailua	% 46	% 42	% 12
Errotulu nagusia	% 45	% 45	% 10
Ordutegia	% 32	% 58	% 10
Kartel eta oharrak	% 33	% 65	% 2
Zigilua	% 53	% 37	% 10
Idazpuru edo menbretea	% 50	% 39	% 11
Gutun azaleko testua	% 29	% 60	% 11
Bazkide txartelak	% 33	% 63	% 4
Salmentetarako produktuak	% 42	% 47	% 11
Batez beste	% 40	% 51	% 9

Eremu euskaldunean eragileen erdiek bi hizkuntzatan dituzte hizkuntza paisaiari lotutako euskarriak. Horien artean, zigiluek eta idazpuruak dute portzentajerik baxuena, nagusiki euskaraz egiten diren zigiluen eta idazpuruaren mesedetan. Hain zuzen ere, euskaraz nagusi egiten diren euskarrien artean portzentajerik handienean daudenak zigiluak eta idazpuruak dira. Irudi korporatiboari estuki lotua dagoen euskarria da hau. Hizkuntza-paisaia **nagusiki euskaraz duten entitateak % 40 dira** batez beste. Bestalde, ele bitan gehien egiten diren euskarriak kartelak eta

bazkide txartelak dira: % 60tik gora. Eta bi euskarri horiek dira, hain zuzen ere, gutxien egiten direnak nagusiki gaztelaniaz. Entitateen % 9k du hizkuntza paisaia nagusiki gaztelaniaz. Hona hemen batez bestekoak:



Interesgarri deritzogu udalen eta elkarten praktiken artean alderik baden ezagutzeari. Horretarako, kartel eta oharren atalari erreparatuko diogu. Euskarri horiek, errotuluak ez bezala, maiztasunez sortzen direlako, batetik. Eta bestetik, herritarrengan inpaktu handia sortzen dutelako eta entitateen espazio propioez harago, kaleko paisaian ere eragiten dutelako. Hona emaitzak:

KARTELAK ETA OHARRAK: EREMU EUSKALDUNA

NAGUSIKI EUSKARAZ



ELEBITAN



NAGUSIKI GAZTELANIAZ




Ikus daitekeenez, euskara nagusi erabiltzeko joera handiagoa da elkarten artean, udalen artean baino. Udal bakar batek ere ez gaztelania hutsezko kartelik sortzen, eta elkarten artean salbuespena da hori.


Azter dezagun orain, eremu mistoa:

EREMU MISTOA	Nagusiki euskaraz	Ele bitan	Nagusiki gaztelaniaz
Erantzungailua	% 0	% 56	% 44
Errotulu nagusia	% 13	% 74	% 13
Ordutegia	% 5	% 62	% 33
Kartel eta oharrak	% 4	% 69	% 27
Zigilua	% 14	% 52	% 33
Idazpuru edo menbretea	% 6	% 71	% 23
Gutun azaleko testua	% 6	% 69	% 25
Bazkide txartelak	% 0	% 67	% 33
Salmentetarako produktuak	% 11	% 56	% 33
Batez beste	% 7	% 64	% 29

Eremu mistoari dagokionez, erantzun dutenen artean **hizkuntza-paisaiari lotutako euskarriak bi hizkuntzatan daude % 64 batean**. Entitateen % 74k dauka errotulu nagusia bi hizkuntzatan, eta euskarri hori da, hain zuzen ere, nagusiki gaztelaniaz portzentajerik txikienean dagoena. Gainerako elementuei dagokienez, euskarriak **nagusiki gaztelaniaz dituzten entitateen batez bestekoa hau da: % 29**. Gehienek nagusiki gaztelaniaz daukaten euskarria erantzungailua da. Erantzun dutenen artean hizkuntza-paisaia **nagusiki euskaraz dutenak % 9** dira, eta zigiluan dago portzentajerik handiena. Alegia, irudi korporatiboarekin estuki lotutako euskarria. Hoan hemen batez bestekoa:




Kartel eta oharrei erreparaturaz, hauek dira emaitzak:



Udaletan joera nagusia da bi hizkuntzatan egitea kartelak eta oharrak. Elkarteen artean, aldiz, erdiak du joera hori, baina ia % 40k nagusiki gaztelaniaz egiten ditu. Salbuespena bada ere, elkarteen artean eremu mistoan karteletan nagusiki euskara ere erabiltzen da.


3.2.8 Euskararen sustapena

Elkarteetako kideei eskatu zaie 1etik (txikia) 5era (handia) zehaztea euskarari toki handiagoa emateko zer behar duten, garrantziaren arabera. Hona emaitzak:



Ikus daitekeenez, bi eremuetan laguntza mota guztiei aitortzen zaie **2,5etik gorako garrantzia**. **Itzulpenek eta euskara plan eta ekintzetarako aholkularitza dira puntuazio altuena** erdiesten dutenak, eremu mistoan garrantzia maila altuagoa aitortuz.

Bestalde, **Nafarroako Gobernuarekin euskaraz aritu nahiko zenuke?** Galderari, honako erantzunak eman dizkiote elkartek:



“Besterik” atalean erantzun hauek jaso dira:

“Kide gehienak euskaldunak dira baina entrenatzaileak gurasoak direnez eta askok euskara hitz egiten ez dutenez, entrenamendu eta lasterketetan askotan egiten da gazteleraz. Baina txirrindulariak haien artean gehienetan euskaraz.”

“Lo que nos resulta difícil es conseguir que todos los entrenadores sean euskaldunes”.

“En una oferta mixta como la nuestra, con deportes que compiten en ligas federativas resulta casi imposible que las personas que comienzan la actividad en las categorías inferiores puedan escalar categorías con todo un grupo homogéneo. Los grupos cambian anualmente por circunstancias muy diversas que no permiten poder mantener mínimos de inscripción en la actividad. No se contempla, por criterio municipal, de ninguna manera, grupos mixtos castellano - euskera”.

“Nosotros requerimos los servicio de euskera para aquellas traducciones que se dan a conocer al público en general”.

“Realmente el Ayuntamiento nos ofrece el servicio de traducción pero no es operativo por la tardanza en recibir las traducciones. Tener en cuenta que en las redes sociales y página web la actuación debe ser inmediata”.

“Prácticamente utilizamos el euskera como idioma con los niños, salvo con el que no sabe nada, que utilizamos el castellano”.

4. EZTABAIDA TALDEAK

Hasieran aipatu bezala, hiru eztabaida talde egin dira hiru gune ezberdinetan: Donezteben, Iruñean eta Irurtzunen. Hona hemen jasotakoak:

4.1 DONEZTEBEKO EZTABAIDA TALDEA

Saiorako 20 eragileri gonbidapena bidali zitzaion, eta haiekin guztiakin telefonoz hitz egin zen. 6 bertaratu ziren (5 elkarteetako kideak, 1 euskara teknikaria). Saioaren lehen zatian nor bere burua aurkeztu du eta elkarren berri jaso dute. Parte hartu dutenen artean denek ez zuten elkar ezagutzen, eta positiboki baloratu dute elkarren berri edukitzea.

Aurkezpenak eginda, bi ariketa egin dituzte:

4.1.1 Zertan ari gara eta zer zailtasun dugu?

Bi galdera landu baziren ere (*Zertan eragiten ari zara/eragin nahiko zenuke?* eta *Zer premia edo zailtasun duzu euskaraz aritzeko?*). Maiz bi planoak gurutzatu egin ziren eztabaida saioan. Izan ere, egiten ari zaren horretan dagoen hutsunearen atzean zailtasun edo premia bat egon ohi da. Horrexegatik txostenean bi dinamikek eman zutena batera emango dugu.

Bi ariketa horietan 4 atali buruz hitz egin zen. Eta horien arabera dago antolatua informazioa.

4.1.1.1 Irudia

Atal honetan hizkuntza-paisaia eta kanpora begirako idatzizko euskarriak aztertu dira nagusiki.

Guztiak adierazi dute gutxienez bi hizkuntzatan egiten direla atal honi lotutakoak. Baita euskara hutsez ere. Eremu euskaldunean kokatuak izanagatik ere, errealitate oso desberdinak daude herri batzuetatik bestera: Igantzin ari edo Donezteben ari, desberdina da. Baina minimoa elebitasun orekatuan kokatu dute.

Gaur egun, garai batean baino gehiago zaintzen dute idatzizkoari lotutakoa ele bitan edo euskaraz izatea. Itzulpen lanak zamatsu suertatzen direla ere adierazi dute. Hala ere, elkarteetan ez dago hizkuntza irizpiderik arauturik. Zuzendaritzan zer kide egon eta horien artean zenbatek jakin euskaraz, gehiago edo gutxiago egiten da. Interesgarri jo da bide hori urratzea, atzerapausorik ez emateko eta ez ibili behar izateko azalpenak ematen modu batera edo bestera egiten dela. Salbuespena izan da euskara hutsez aritzen den elkarteak, haiek estatutuetan jasota baitute euskaraz ariko direla. Eta hala egiten dute, baita antolatzen duten probarik handienean ere: BTT jaitsiera OPENa, estatu espainoletik parte hartzaile ugari dituen proba izanik ere.

4.1.1.2 Eskaintza

Eskaintza nagusiki euskaraz egiten dela adierazi da. Egiten den hori ez da egiten berariaz euskara sustatzeko, hori naturala dena delako baizik (entrenamenduak, megafonia...). Eremu euskaldunagoetan eskaintza guztia euskaraz egiten da, hain euskaldunak ez diren eremuetan guztia ez. Gaztelaniazko eskaintza nagusiki gazteen eta helduen eskaintzan suertatzen da. Batzuetan parte hartzaile erdaldunak tarteko daudelako, bestetan entrenatzaile edo monitoreek ez dakitelako. Parte hartzaile erdaldunak tarteko dauden kasu batzuetan ere aipatu da eskaintza euskaraz ere egiten dela batzuetan, klaseak jarraitzeko moduan.

Futbol alorretik adierazi da kategoria batetik aurrera entrenatzaileek titulazioa behar dutela. Horrek maiz kanpoko entrenatzaileak behar izatea eragiten du. Eta horrela, zaildu egiten da entrenatzaile euskalduna izatea, kanpotik etorri behar baitute.

Baina haurren eskaintzan bai egiten dela saiakera handiagoa euskaraz izan dadin. Hala ere, zenbaitetan dagoen arazoa monitoreak edo entrenatzaileak euskara ez ezagutzea da. Gainera maiz boluntarioekin egiten da lan, eta horrek exigentzia zailtzen du. Horren harira gertatzen da gurasoak kexu agertzea gaztelaniaz aritzeagatik, baina nahiko irtenbide zaila dutela adierazi da. Hor kokatu da eskaintza euskaraz egiteko zailtasunik handiena. Horri lotuta, aipatu da Baztanen asmoa dutela begirale ez euskaldunentzako ikastaroak antolatzeke. Izan ere, euskaraz jakin ez arren, kirol praktika izanik lantzen dena, zenbait esamolde euskaraz emateko aukera egingarritzat jotzen da. Horrela, hizkuntza jarrera positiboak ere transmititu daitezke.

Bide horretatik, kezka agertu da nerabeek gaztelaniarako duten joeragatik. Eskaintza euskaraz izan arren, haien artean gaztelaniaz aritzeko joera handitzen ari dela aipatu da. Horri aurre egin nahian, ikastetxeetan kiroleko figura euskaldunekin egin nahi den programaren berri eman da. Asmoa ikastetxeetan gaia lantzea da, kirolari ezagunen eskutik.

Bestalde, aipatu da kirol eskaintza abagune ezin hobea dela nerabeen arteko euskarazko jarrerak sustatzeko. Lan ildo horri heldu nahi zaio, erabilera sustatzeari begira.

4.1.1.3 Barne funtzionamendua

Bi errealitatez hitz egin daiteke elkarteek sortzen dutenari buruz. Batetik, eskualdeari edo herriari begirako dokumentu edo bilerak: bi hizkuntzatan edo euskara hutsez egiten dira. Bestetik, Nafarroako Gobernuarekin eta Federazioekin egiten diren harremanetan gaztelania erabiltzen da: baimen eskaerak, urteko memoria... Hau horrela egiten da tramitea arintze aldera. Beldur dira baimenak gaztelaniaz eskatuz gero ulertu ez, eta baimenaren tramitea atzeratzeagatik, baimenik ez lortzea.

Bestalde, Federazioen aldetik gaztelaniaz jasotzen dute eremu euskalduneko elkarteek gehiena: ikastaro deialdiak, federatu txartelak... Federazioen arabera euskararen presentzia eta harremana bera euskaraz egiteko aukera badago ere (Mendi Federazioa aipatu da), normalean gaztelania da nagusi (futbola, eskubaloia, saskibaloia...). Kanpotik bidaltzen zaien horrek erdalduntzen du haien dinamika.

Gai honen inguruan hizketan egin den hausnarketa da, elkarreetatik ez zaiela Federazioei euskaraz aritzeko edo materiala euskaraz bidaltzeko eskaerarik egin. Eta agian indarrak batu beharko lituzketela eskaera modu bateratu batean egiteko. Bide hori urratzea interesgarritzat jo da.

4.1.1.4 Bestelakoak

Aipatu den arazoetako bat, partidei begira, arbitroena da. Adierazi dutenez, gertatzen zaie lortzen dela partaide euskaldunetz osatutako taldea osatzea, entrenatzailea euskalduna izatea, eta partidaren eguna iritsita Federaziotik bidaltzen den arbitroa erdalduna izatea. Horrek dinamika erabat erdalduntzen du, parte hartzaileentzat garrantzitsua den momentu batean, eta gainera plaza publikoan.

Praktika on gisa euskara hutsez funtzionatzen duen elkarteak ezagutzera eman du haien jarduna kudeatzeko erabiltzen duten programa euskaraz dutela. Berariaz kontratatua dute enpresa batekin, euskaraz eskaintzen dielako zerbitzua.

Ahalduntzeaz ere hitz egin da. Aipatu da “errespetu faltaren mamua” uxatu beharra dagoela. Zenbaitetan behar baino gehiago erabiltzen dela gaztelania. Esate baterako, karteletan. Oso oinarrizko informazioa euskaraz soilik emanda ere jendeak ulertzen duela.

Halaber, adierazi da elkarreentzako informazio iturri naturala eta erreferenteak Federazioak direla. Garrantzitsutzat jo da kirolean euskara sustatzeko egin daitezkeen ikastaro eskaintzak edo materialak, Federazioetako webguneen bidez eta hain bidalketen bidez egitea. Alegia, Federazioen jardunean txertatzea horrelakoak.

Amaitzeko, euskara planei buruzko informaziorik ez dutela adierazi dute. Ez zen ezaguna jarduteko modu hori espazioak euskalduntzeko tresna gisa. Horri buruzko informazioa hedatzea garrantzitsutzat jo da diru-laguntzak eskaini aurretik.

4.2 IRUÑEKO EZTABAIDA TALDEA

Saioarako 20 eragileri gonbidapena bidali zitzaion, eta haiekin guztiekin telefonoz hitz egin zen. Saioan 6 kidek (3 kirol teknikari, 2 euskara teknikari eta elkarreetatiko kide 1) parte hartu zuten.

Saioaren lehen zatian nork bere burua aurkeztu du eta elkarren berri jaso zuten. Aurkezpenak eginda, bi ariketa egin dituzte:

4.2.1 Zertan ari gara eta zer zailtasun dugu?

Bi galdera landu baziren ere (*Zertan eragiten ari zara/eragin nahiko zenuke?* eta *Zer premia edo zailtasun duzu euskaraz aritzeko?*). Maiz bi planoak gurutzatu egin ziren eztabaida saioan. Izan ere, egiten ari zaren horretan dagoen hutsunearen atzean zailtasun edo premia bat egon ohi da. Horrexegatik txostenera bi dinamikek eman zutena batera emango dugu.

Bi ariketa horietan 4 atali buruz hitz egin zen. Eta horien arabera dago antolatua informazioa.

4.2.1.1 Irudia

Atal honetan hizkuntza paisaia eta kanpora begirako idatzizko euskarriak aztertu dira nagusiki. Guztiek adierazi dute bi hizkuntzatan egiten direla atal honi lotutakoak. Egoera desberdinak daude, hala ere.

Udaletan ordenantzek araututa dago ele bitan egin behar dela, eta Udala bera denean zuzenean euskarria sortzen duena, hala egiten da. Zailagoa suertatzen da, ordea, herritarrari begirako dokumentu eta txartelak bi hizkuntzatan ateratzen dela bermatzea azpikontratazio bidez eskaintzen denean zerbitzua. Eta bide hori da ohikoena kirol instalazio publikoen kudeaketan.

Antzera gertatzen da herri hauetan kirol klubek ateratzen dituzten karteekin. Diru-laguntza deialdietan edo hitzarmenetan bi hizkuntzatan atera behar dituztela jasotzen den arren, zaila da ondoren jarraipen lana egitea, eta ziurtatzea hala egin dela. Hala ere, urratsak ematen ari dira eremu honetan.

Aipatu da, halaber, batzuetan araututa egon arren, Udalak berak ez duela betetzen. Tartean dago langile batzuen jarrera ere. Hori zailtasuna izan arren, lan egiten da bi hizkuntzatan atera daitezen euskarriak. Eta aurrerapausoak eman direla hizkuntza-paisaiari dagokionez.

Brinka proiektuaren berri ere eman da: multikirola euskaraz. Proiektu honi lotutako txartelak eta publizitatea bi hizkuntzatan egin dira.

Ezberdina da parte hartu duen elkartearen egoera. Bi hizkuntzatan ateratzen dituzte euskarriak: webgunea, *newsletter*, app-a, txartelak eta seinaleetika. Baina ez da egiten arautua dagoelako. Bazkideen artean badago euskararekiko sentsibilitatea eta euskaldunak diren bazkideak ere bai. Haien eskariz joan da elkarte urratsak ematen. Bertan jende oso desberdina bildu arren, ez dago arazorik euskarari presentzia ematearekin (errefusatzan duten batzuk bai, baina ez dira asko eta kudeatu daitekeen zerbitzu da). Adierazi da administrazioaren aldetik elkarteak euskaraz aritzeko laguntza handiagoa behar dela. Besteak beste, ongi legokeela diru-laguntza esleipenetan ahalegin hori baloratzea, eta itzulpenetarako diru-laguntzak edo zerbitzuak eskaintzea.

4.2.1.2 Eskaintza

Kirol eskaintza publikoan euskarazko eskaintzarik handiena haurrentzako eskaintzan dago. Eta hala ere, eskaintza murrizta dela adierazi da. Eskaintza hau egiteko orduan, arazo ezberdinak aipatu dira. Batetik, kasu guztietan ez da sistematikoki jasotzen izena ematen dutenen euskararen ezagutza. Hori jasotzeari ekin nahi zaio izen emate orrien bidez (zenbait udalek dagoeneko egiten dute). Horrela ezagutu nahi da zenbat euskaldun dagoen eta zein diziplinatan ari den, eskaintza afinatzeari begira. Bigarren aferetako bat da monitore euskaldunena.

Azpikontratazio pleguetan ongi jaso behar da, baita gerora bermatu ere, eskaintza euskaraz emateko aski monitore euskaldun izango dituztela. Izan ere, arazoetako bat eskaintza egiteko monitore euskaldun falta da. Kasu gehienetan azpikontratazioen baldintza pleguetan hau oraindik ez dagoela ongi landua adierazi da. Eta hirugarren gai bat ere mahai gainean jarri da: euskarazko taldeak osatzeko nahiko parte hartzailek izena ematea. Adostasuna agertu da adieraztean eskaintza egin, egin behar dela. Eskaintzaren bidez sortzen dela eskaria. Eta ahal dela, ordutegi

tarte erosoetan eta diziplina arrakastatsuetan kokatzea garrantzitsua dela. Izan ere, euskaldunek gaztelaniaz ere badakitenez, ordutegi erosoagoa edo kirol erakargarriagoa hautatuko dute gaztelaniaz eskaintzen bada ere.

Arazo hau bera errepikatu egiten da, baita areagotu ere, helduentzako kirol eskaintza publikoaz hitz egiten jarrita. Ia dena gaztelaniaz eskaintzen dela adierazi da. Helduentzako eskaintza euskaraz egiteko azterketa lan bat egiteko asmoa ere adierazi da.

Gai horrekin lotuta, gehitu da zailtasunak dauden izen emateen datuak baloratzeko, enpresa kudeatzailearen gardentasun falta medio. Horrek zaildu egiten du errealitatea aztertu ahal izatea, eskaintza egokiagoa egite aldera.

Kirol eskaintza publikoaren azpikontratazioetako baldintza pleguetan zerbitzua euskaraz eskaintzeko nahikoa langile euskaldun egotea jasotzera jo behar dela azpimarratu da: izan kirol eskaintza egiten dutenena, izan herritarrari harrera egiteko guneetan. Eta hori baldintza pleguetan gaia ongi txertatuz lortu behar dela adierazi da.

Bestalde, kirol eskaintzaren oso zati handi bat kirol klubon bidez egiten dela adierazi dute, eta zaila dela horien eskaintzari eragitea.

Brinka proiektua eskaintza publikoa izanik ere, eskaintza ezberdina da. Monitore guztiak elebidunak dira. Herrietako ikastetxe guztietan egiten da eskaintza, eta euskaraz aritzen diren ikastetxeetan euskaraz egiten da eskaintza. 2 talde daude euskaraz. Horietako batean 16 euskaldun eta 4 erdaldun daude. Baina taldeak euskaraz funtzionatzen du. Oso esperientzia positiboa izan da. Gaia ongi landu da gurasoekin eta ikasleekin. Eta erdaldunak direnek aukera gisa ikusi dute euskara pixka bat ikasteko kirola praktikatzan duten bitartean. Hala ere, azalpenak eta euskaraz eman arren, baten batek gaztelaniaz egiten duenean galdera, denak pasatzen dira gaztelaniara. Egoera horiek kudeatzea konplexua dela adierazi da.

Kirol elkarteari dagokionez, aipatu da oraindik ez dagoela aztertuta zenbat bazkide euskaldun dituzten, baina hori egiteko asmoa dagoela. Eskaintzari dagokionez, aukera dagoenean eskaintzen dutela adierazi da. Alegia, monitorea euskalduna denean, parte hartzen ari direnei nahi duten hizkuntza egiten die. Euskaldunei euskaraz zuzenduz, eta erdaldunei gaztelaniaz. Garrantzia handiagoa ematen zaie egiten diren kirol jarduerari, eskaintzen diren hizkuntzari baino. Baina ez dira euskarazko taldeak sortzen. Kirol diziplina guztietan monitore euskaldunen bat dutela adierazi du, baina ez dagoela araututa. Euskarazko eskaintza elkarteak antolatzen dituen kultur ekimenetan egiten da (antzerkia, esaterako). Aipatu da ere oraindik ez dela biltzen bazkideek eskaintza euskaraz jasotzeari ematen dioten garrantzia. Baina informazio hori eskatzeko bidea ere jarri nahi dela.

4.2.1.3 Barne funtzionamendua

Elkartearen kasuan adierazi da baldintza berdinak betetzen dituzten langileen artean, euskara ere dakiena lehenesten dela. Baina ez daukate hizkuntza eskakizunik ezarrita kontratazioei begira. Aztertzen ari dira hizkuntza eskakizunak ezartzea kontratazioetarako.

Udalen aldetik arazo eta errealitate ezberdinak aipatu dira. Hona batzuk:

- Udalean itzulpen zerbitzurik ez egotea arazoa da. Ordenantzak, deialdiak, araudiak... gaztelaniaz argitaratzen dira. Itzulpenak azpikontratatzeko dira, baina aurrekontuak ez du ematen dena itzultzeko.
- Udaleko jardun guztirako kirol teknikari bakarra egotea, lan zama handia.
- Kirol teknikariak euskarazko eskaintza udaleko eskaintzan txertatu nahi ez izatea arazoa da.
- Oro har harrera euskaraz bermatzen bada ere, zeregin hori duten lanpostuetan hizkuntza eskakizunak ezartzea aztertzeke asmoa dago.
- Langileei euskara ikastea erraztea.

4.2.1.4 Bestelakoak

Kirol teknikarien eta euskara teknikarien arteko elkarlan sustatu behar dela aipatu da. Askotan bakoitza bere esparruan ari da lanean. Elkarlanean aritzeko saiakera egin denean euskara teknikarien aldetik, batzuetan erresistentziak egon dira kirol teknikari batzuen aldetik kirolean euskarazko eskaintze egitea planteatzen denean. Lehentasun handiagoko beste gai batzuk daudela adierazten dute. Formazioa falta da kirol teknikarien artean gaiak zeharkakotasunez lantzeari begira.

Bide horretatik, kirol teknikariei euskarari buruzko sentsibilizazioa lantzeko eta kirolaren bidez euskara sustatzeko prestakuntza ikastaroak eskaini behar zaizkiela adierazi da, Kirol Institututik.

Azpimarratu egin da ez dela Euskarabidearen eskutik egin behar lan hau. Euskarabideak gaiak prestatu dezake, laguntza eskaini Kirol Institutuari, baina eskaintzaren sustatzaile edo erreferentea Kirol Institutuak izan behar duela adierazi da.

Prestakuntzarekin jarraituz, proposatu da erdarazko taldeetan lan egiten duten monitore euskaldunei prestakuntza eskaintzea, parte hartzaile euskaldunekin euskaraz aritzeari begira.

Azpikontratazioetako baldintza pleguetan hizkuntza irizpideak jasotzeko beharra adierazi da: eskaintza egiteko, txartelei begira, harrera egiteko...

Elkartean langileei prestakuntza eskaintzea interesgarri joa da, kirolaren bidez euskara nola sustatu eta euskara nola kudeatu gai hartuz. Horretarako baliabideak eskatu dira. Bestalde, erronka gisa planteatu da euskara eskaintzea modu naturalean eta zeharkako izaerarekin.

Sentsibiltate ezberdinak artatzea da helburua: bazkide bakoitzak nahi duen hizkuntzan komunikatzeko aukera edukitzea.

4.3 IRURTZUNGO EZTABAIDA TALDEA

Saiorako 20 eragileri gonbidapena bidali zitzaion, eta haiekin guztiekin telefonoz hitz egin zen. Irurtzungo saioan 7 kidek parte hartu zuten (2 kirol teknikari, 2 kirol zinegotzi eta elkarteetako 3 kide).

Saioaren lehen zatian nork bere burua aurkeztu zuen eta elkarren berri jaso zuten. Aurkezpenak eginda, bi ariketa egin zituzten.

4.3.1 Zertan ari gara eta zer zailtasun dugu?

Bi galdera landu baziren ere (*Zertan eragiten ari zara/eragin nahiko zenuke? eta Zer premia edo zailtasun duzu euskaraz aritzeko?*), maiz bi planoak gurutzatu egin ziren eztabaida saioan. Izan ere, egiten ari zaren horretan dagoen hutsunearen atzean zailtasun edo premia bat egon ohi da. Horrexegatik txostenean bi dinamikek eman zutena batera emango dugu.

Irurtzungo saioan nagusiki Sakanako eragileek parte hartu zuten. Eman zuten iritziek eskualde horren errealitatea marraztu zuten. Bi egoeraren isla etengabe egon zen mahai gainean. Batetik, eskualde berean egonagatik ere, erdaldunduagoak diren herriena, bestetik, herri euskaldunagoena. Azken hauetan, ikusiko dugunez, oso praktika aurreratuak dituzte. Gehitu beharrekoa da, gainera, Sakanako Mankomunitateko kirol Zerbitzutik kirolean euskara sustatzeko programa abian dagoela duela urte batzuetatik. Programa hau, baina, ez dago herri guztietan abian. Ikus dezagun saioak eman zuena.

4.3.1.1 Irudia

Hizkuntza-paisaiak hizkuntzaren normalizazioan duen funtzioari buruzko ezagutza edo kontzientzia maila desberdinak agertu dira eragileen artean. Herri erdaldunduetako ordezkariak adierazi dute kartelak egitean, edo oharra ateratzean, aintzat hartzen dela bi hizkuntzatan joatea. Baita, kirol probetarako kalean jartzen dituzten norabide seinaleetan soilik euskara erabiltzea ere, mezua erraz ulertzen denean. Ordea, haien kirol espazioetako errotulazioaz hausnartzen jarrita, gehiena gaztelaniaz dagoela adierazi dute: markagailuak, aldagelak, komunak... Esan dutenez, inoiz ez diote bereziki erreparatu horri, beti hala egon da, eta normal ikusten dute. Baina aldatu beharrekoa dela adierazi dute, eta alda daitekeela.

Egoera hau bi udal eta elkarte batean adierazi da. Elkartean hizkuntza irizpiderik ez dutela adierazi dute. Udal horietako ordezkariak ez dute gai hori aipatu.

Bestalde, gune euskaldunetako herrien egoera jarri da mahai gainean. Horiek euskara hutsez edo nagusiki euskaraz dituzte haien euskarri guztiak. Udalen kasuan, hizkuntza irizpideak araututa dituzte. Elkartean kasuan ez, baina haien egiteko modua hori da. Areago: Euskal Herri osotik, baita Katalunia, Errioxa eta Frantziatik lehiatzera datozen txapelketa bat antolatzen du elkarte batek, eta horko euskarriak ere euskara hutsez egiten dira.

4.3.1.2 Eskaintza

Herri erdaldunduagoetan kirol eskaintza nagusiki gaztelaniaz da. Euskaraz eskaintzen den apurra haurrentzat antolatzen dena da. Eta zentzu horretan adierazi da, haurrentzako eskaintza, nagusiki, elkarte eta klubetatik bideratzen dela. Hauek gaztelaniaz funtzionatzen dute nagusiki. Hala ere, aldea dago eskaintzen den kirolaren arabera: pilota denean gehiago eskaintzen da euskaraz, futbola edo areto futbola denean, gehiago gaztelaniaz. Helduen kasuan, ez dago euskarazko eskaintzarik.

Eskaintza euskaraz egiteko arazo desberdinak aipatu dira. Batetik, monitore edo entrenatzaile euskaldun falta. Bestetik, taldeen osaera. Izan ere, maiz ez du ematen euskarazko taldea eta gaztelaniazkoa osatzeko, talde bakarra dago. Eta aski da 10eko taldean bakar batek euskaraz ez jakitea, taldea osorik gaztelaniaz aritzeko. Horrekin batera hizkuntza ohituren gaia ere atara da. Aipatu da “errespetu faltaren” zama gaintetik kendu behar dela oraindik ere. Gehiago egin daitekeela euskaraz, baina naturalizatuta dutela gaztelaniaz aritzea: *“Futbola egitera zoazenean, kirola egitera zoaz, ez duzu pentsatzen euskara gehiago erabiltzeko momentua eta aukera ere badela”*. Horretaz hausnartzen hasita, kirolean egiten dena baino gehiago egin daitekeela euskaraz aipatu da. Edonola ere, eskaintza egitean, ez da hasieratik taldea euskaraz eskaintzen (aerobika euskaraz, esate baterako).

Bestalde, gune euskaldunetan udaletan eskaintza euskaraz egiteko erabakia hartuta eta araututa daukate. Bai udalek zuzenean egiten duten eskaintza, baita elkartek egiten dutena ere.

Udalen eskaintzari dagokionez, monitore euskaldunak kontratatzen dira, alde batetik. Bestetik, izena emateko inprimakietan honakoa adierazi behar da: “euskaraz dakit”, “ulertzen dut”, edo “ez dakit”. Horrela, taldeko kideen hizkuntzaren ezagutzaren arabera nola osatua dagoen, taldeak modu batera edo bestera funtzionatuko du. Semaforo batek dituen 3 koloreak jasotzen dira, taldeko ezagutzaren arabera kolore bat hartzen du, eta horren arabera adierazten da taldeak erabat euskaraz funtzionatuko duen, edo gaztelania ere tartekatuko den.

Funtzionatzeko modu hau izen emate garaian helarazten zaie herritarrei, horrela badakite nola ariko diren taldeak. Horrek babestu eta errazten du, gerora, monitoreak taldean egin beharreko kudeaketa. Gainera, mezua positibotik ematen da: euskaraz gutxi badakizu ere, kirola egiten zaudela aprobetxatuz, euskara pixka bat gehiago ikasiko duzu. Izan ere, kirol saioetako elkarrizketak oso mugatuak eta ariketak egiteari bideratuak izan ohi dira.

Elkarteen kasuan, udalak elkarteekin duen hitzarmenean hizkuntza irizpideak ezarriak dituzte eskaintza euskaraz egin dadin. Hemen zenbaitetan arazoak daude, joera dagoelako gaztelaniaz aritzeko. Berezi kirol taldeetan. Hala ere, irizpideak jartzeak ondorio positiboak dituela adierazi da. Adibide gisa jarri da Osasuna Fundazioarekin 15 urte lanean daramatela, eta euskarazko jarduna egiten dela haien eskutik. Hasieratik hitzarmenean euskaraz aritzeko baldintza ezarri zen, eta betetze da.

Mankomunitatetik Udaletan eskaintza aipatu moduan egiteko programa hori sustatzen da. Herri batzuetan oso garatua dago, beste batzuetan ez hainbeste: Olaztin, Altsasun, Irurtzunen, Arbizon eta Etxarri Aranatzan dago abian, emaitza ezberdinekin. Eta beste herrietara momentuz ez da hedatu. Programa horren baitan monitore formatu eta euskaldunen lan-poltsa osatuta dago, eta horrek eskaintza egin ahal izatea errazten du. Hala ere, kirol elkarteetan kontzientziazio lan handia egin beharra dagoela azpimarratu da. Kirol monitore eta entrenatzaileekin, esate baterako. Baina lan hau ez dela erraza aipatu da. Sentsibilizazioa lantzeko saioak eskaini zaizkie elkarteetako

monitoreei (TELP [Taller de Espacio Lingüístico Personal] ikastaroak), eta ez dutela parte hartu nahi izan adierazi da. Euskararen gaia kirolaz gaindiko zerbait balitz bezala ikusten da. Hori dela eta, interesgarritzat jo da monitore edo entrenatzaile izateko ikastaroetan euskara sustatzeko ezagutzak txertatzea, eta euskarari buruzko sentsibilizazio lana egitea.

4.3.1.3 Barne funtzionamendua

Federazioen gaia atera da hemen ere. Adierazi dute funtzionamendua erabat erdalduna dutela, eta horrek herriei eragiten diela. Irristaketa Federazioaren adibidea jarri da. Izena eman duten haur guztiek euskaraz dakite, baina federaziotik datorren guztia gaztelaniaz dator: megafonia... Federazioak erdalduntzen du kirol jarduera, herrietan lan handia egin arren. Galdetu da ea Nafarroako Gobernutik ez den federazioak euskaraz ari daitezen lanik egin.

4.3.1.4 Bestelakoak

Sentsibilizazioari begira, egin diren lanketak monitore euskaldunei begirakoak izan direla adierazi da. Monitore erdaldunentzako sentsibilizazio saiorik ez dagoela aipatu da, eta horrelakoak edukitzea interesgarritzat jo da.

5 . ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Aztertu diren kirol elkarte eta Udalek egiten duten eskaintzaren kopuru orokorreari erreparaturaz, kirol jarduerak bolumen handia dutela esan daiteke: adin guztietako parte hartzaile, entrenatzaile, monitore eta boluntario asko daude inplikaturaz kirol jardueretan. Gainera, aisia eta modu atsegingarrian egiten diren jarduerak izanik, garrantzia berezia hartzen du kirolaren eremuan euskara sustatzea.

Ondorioen atal honetan hiru bloketan sailkatu dira jasotako datuen ondorio nagusiak, baita kirolean euskara sustatzeko proposamenak ere. Kasu gehienetan eztabaida taldeetan egindako proposamenak laburbildu dira. Kasu batzuetan, berriz, eztabaida taldeetan proposamen zehatza egin ez bada ere, deskribatutako egoerari erantzuteko proposamenak ere jaso dira. Ikus ditzagun bada, ondorio eta proposamen nagusien nondik norakoak:

5.1 HIZKUNTZA PAISAIA

Galdetegia erantzun duten **eremu misto eta euskalduneko udalek, oro har**, kanpora begirako **euskarriak bi hizkuntzatan** egiten dituzte. Egoera horren arrazoi **nagusia hizkuntzaren erabilera araututa edukitzea dela esan genezake** (ordenantzen bidez zein hizkuntza irizpideen bidez, eztabaida taldeetan adierazi denez). Elkarteen artean, aldiz, ezberdintasunak daude eremuaren arabera. Kartel eta oharrei erreparatuko diegu ondorio hau ateratzeko, horiek, baitira maiztasunez sortzen diren euskarriak eta herritarrengan inpaktu handia sortzen dutenak. Gainera, entitateen espazio propioez harago, kaleko paisaian ere eragina dute. Horiei erreparaturaz, **eremu euskaldunean erantzun duten elkarteek % 2k baino ez du gaztelania hutsezko kartelik egiten. Eremu mistoan erantzun duten elkarteek artean, berriz, ia % 40k ateratzen ditu gaztelaniaz.** Eztabaida saioetan agerian geratu da kasu guztietan **ez dagoela hizkuntzaren erabilera araututa elkarteetan**. Horri begira, hona jasotako proposamenak.

- **Elkarteek artean hedatzea hizkuntza irizpideak jasotzeko proposamena.**
- **Kirol elkarteek begirako diru-laguntza deialdietan hizkuntza irizpideak txertatzea laguntza jasotzeko:** Hala nola, kartelak eta abar bi hizkuntzatan egiteko irizpidea.

Hainbat udalek dagoeneko egiten dute lan hau. Baina ez dago orokortua, alegia, ez dute udal guztiek egiten. Bestalde, baldintza hori betetzen ote den jakiteko jarraipen lana egin beharko litzateke, eta beti ez dela erraza adierazi da. Hala ere, bide horretatik aldaketak eragin direla eta emaitzak daudela adierazi da.

Bestalde, elkarteek euskararen sustapenari dagokionez zein arlotan duten premia galdetuta, **eremu mistoan eremu euskaldunean baino premia gehiago adierazi dute emandako puntuazioaren bidez, eta garrantzia handien itzulpenak** non/nola egin ezagutzeari aitortu diote: 5 puntutik 4 eremu mistoan, 3,1 eremu euskaldunean. Galdetegiaren bidez jasotako erantzunetan

ere itzulpenen gaia aipatu da berariaz: adierazi da udalak zerbitzua eskaintzen duenean, ez dela nahi bezain azkar jasotzen itzulpena. Eta eztabaida taldeetan ere itzulpenek eragiten duten lanaz hitz egin da.

- **Baliabideak eskaintzerakoan, beraz, itzulpeni lotutakoak aintzat hartzea beharrezkoa da.**

Eztabaida taldeetan aditzera eman da, halaber, karteletan euskara erabiltzeko beharra presentego badago ere, **errotuluak maiz gaztelaniaz** baino ez dituztela. Prestutasuna adierazi da horiek euskaraz jartzeko eta egingarria dela ere adierazi da. Hori aintzat hartu, hona proposamena:

- **Errotulazioa euskaratzeko lanketa egitea eta horretarako laguntza eskaintzea.** Horretarako elkarteei tresna desberdinak eskain dakizkieke: **diagnostikoa egiteko fitxa bat eskaintzetik, euskara plana diseinatzeko aholkularitzaraino.**

5.2 ESKAINTZA

5.2.1 Eskaintza haur eta gazteen artean

Aintzat hartuz Nafarroan euskararen ezagutza tasarik altuenak haurren eta gazteen artean daudela, eta bereziki garrantzitsua dela euskaraz sozializatzea ezagutza hobetu eta erabilera sustatzeari begira, eskaintzaren lehen fokua adin tarte horretan jarriko dugu.

Eremu euskalduneko 9-10 eta 13-14 adin tartetako datuei erreparatuz, lehen ondorio da **nagusiki euskaraz** egiten dela eskaintza. Hala ere, adinak aurrera egin ahala **20 puntu jaisten da euskarazko eskaintza (9-10 adin tartean % 82, 13-14 adin tartean % 62)**, eta gora egiten dute *ele bitan*³ eta gaztelaniaz egiten den eskaintza. Jaitsiera hau ematearen arrazoiak sakon aztertzeak dira. Izan ere, parte hartzaileen ezagutza datuak ez dira oso desberdinak bi adin tarte horietan. Bestalde, gaztelaniaz eta *ele bitan* eskaintzen diren taldeei erreparatuz, eskaintza horrela egiteko arrazoi nagusia **monitore edo entrenatzaileek euskaraz ez jakitea da**. Irurtzunen eta Donezteben egindako eztabaida taldeetan arazo hau mahai gainean jarri da. Horren atzean, batetik, **boluntarioekin** aritzeak sortzen duen zailtasuna dagoela adierazi da (*“lan boluntarioa egiten duenari, nola exijitu euskaraz jakitea?”*) Baina, bestetik, **profesionalizazioak** berak ere arazoa dakarrela adierazi da: kategoria batetik aurrera entrenatzaile gisa aritzeko titulazioa eskatzen bada, gerta daiteke kanpotik etortzea titulua duen entrenatzaile edo monitorea, eta euskaraz ez jakitea. Arazo hauei **konponbide bat emateko** abian dauden zenbait ekimen aipatu dira saioetan, baita ideia mailan dauden beste batzuk ere.

Hemen laburbildu ditugu gure ustez, arazo honi buelta ematen lagunduko dutenak:

- Euskaraz ez dakiten monitore edo entrenatzaileei **euskalduntze ikastaroak** eskaintzea.
- Euskaraz ez dakiten monitoreei kirolaren bidez euskara sustatzeak duen garrantzia nabarmentzeko ikastaroa eskaintzea. Bide horretatik **sentsibilizazio lana** egin behar da

³ Taldeek ez dute zehaztu ele bitan egiten den eskaintzan nola funtzionatzen den. Baina hala egiten dutela adierazi dute batzuek.

monitoreekin, batetik. Bestetik, **oinarrizko esapideak** irakasteari bideratutako tarte bat ere bai sartu behar da, gutxien-gutxienerako bat euskaraz egin dadin.

- Monitore **profesional euskaldunen lan-poltsa** osatu, euskaldunen kontratazioak errazte aldera.
- Entrenatzaile/monitore **titulua euskaraz ateratzeko** aukera eskaini, eta aukera hori erraztea.
- Kirol eskaintza egiteko (azpi)kontratazioetako **baldintza pleguetan ezartzea monitore/entrenatzaileek euskara ezagutu beharra.**

Bestalde, eremu euskaldunean praktika on gisa nabarmentzekoa da haur **guztiek euskaraz jakin ez arren, taldeak euskaraz funtzionatzea**. Bide interesgarri eta emankorra izan daiteke hau, hedatu beharrekoa, alde desberdinetatik. Batetik, euskaldunak ez direnei kirol praktikaren bidez euskara ikasten joateko aukera irekitzen zaielako. Bestetik, euskaldunei sozializazioa euskaraz egiteko aukera bermatzen zaielako. Bide hau baita eremu mistoan ere urratzea interesgarria izan daiteke, ikusiko dugunez. Azpimarra jarri nahiko genuke, halaber, **horrelako taldeen atzean hausnarketa eta erabaki kontziente bat dagoela** euskaraz funtzionatzearen alde. Eztabaida taldeetan, ordea, adierazi da maiz euskaraz funtzionatzen dela hori delako ingurune horretan naturala dena. Eta halaber adierazi da, natural bizi dela gaztelaniaz entrenatzea euskaldunak izan arren, kirola egiten ari direlako, ez euskara sustatzen. Alegia, **kasu guztietan ez dago kontzientzia argirik kirolaren bidez euskara sustatu edo euskara desagerrarazi daitekeela**.

Horiek aintzat hartuz, interesgarria izan daiteke honakoa:

- **Kirol elkarteetako kideen artean sentsibilizazio kanpainak edo prestakuntza saioak egitea, kirolaren bidez euskara sustatzeko.**

Aipamen berezia egin nahiko genuke eskaintza *ele bitan* egiten dela adierazi duten elkarten harira. Izan ere, galdetegian taldearen hizkuntzaz galdetzean euskaraz edo gaztelaniaz aritzen ziren jasotzea zen helburua. Baina ikusi denez, zenbait kasutan adierazi da *ele bitan* egiten dela. Ikusitakoagatik, esan genezake horretarako bi arrazoi nagusi dagoela. Batetik, entrenatzaile/monitorea erdalduna izatea (taldean 2 entrenatzailetik batek ez jakitea, esaterako) edo euskaraz gaitasun maila osoa ez izatea. Bestetik, taldeko parte hartzaile guztiak euskaldunak ez izatea, monitore/entrenatzailea euskalduna izan arren. **Eskaintza ele bitan egitea, maiz, euskararen kaltetan izaten da: taldea osorik erdarara jotzeko arriskua etengabekoa da**, bereziki parte hartzaileen artean euskaldun kopurua erdia baino gutxiago denean. Baina euskaldun dentsitatea izan daiteke halako erdibideak hartzeko arrazoi, eta jasotako erantzunek aditzera eman digute horrelako taldeak abian direla. Gauzak horrela, monitoreak hizkuntza kudeaketan eta euskararen sustapenean ongi formatzea garrantzitsua izango da:

- Monitore euskaldunentzako prestakuntza **hizkuntzen kudeaketan eta euskararen sustapenean.**

Praktika ez hain onak ere antzeman ditugu: taldekideak eta entrenatzailea euskaldunak izanik ere, jarduera gaztelaniaz egitea. **Gaztelaniarako joerak, nagusiki, futbolarekin lotutako praktketan antzeman dira.** Badago zer hausnartua zentzu horretan.

Eremu mistoko 9-10 eta 13-14 adin tartetako datuei erreparatuz, lehen ondorioa da eskaintza nagusiki gaztelaniaz egiten dela. Gainera, adinak aurrera egin ahala, euskarazko eskaintza ere murrizten joaten da: **9-10 adin tartean % 18, 13-14 adin tartean % 7.** Eremu mistoan ere, parte hartzaileen ezagutza datuak ez dira oso desberdinak bi adin tarte horietan, eta eremu euskaldunean gertatzen den fenomeno berdina geratzen da.

Gaztelaniaz funtzionatzen duten taldeei erreparatuz, eremu euskaldunean azaleratzen den arrazoiak gain (**monitore edo entrenatzaileek euskaraz ez jakitea**), badira azpimarratzeko beste bi gai. Batetik, **euskaldunen dentsitatea**. Gaztelaniaz funtzionatzen duten talde batzuen kasuan aditzera ematen da parte hartzen dutenen erdiak baino gutxiago direla euskaldunak. Bestetik, ikusi da maiz **ez dagoela jasota euskaldun kopurua zein den**. Horrek eskaintza euskaraz egiteko aukera oztopatzen du, euskaldunak ez baitira ikusarazten. Arazo horiei aurre egiteko, **eremu euskaldunerako aipatutakoez gain, beste bide hauek ere landu** beharko lirateke:

- **Izen emate prozeduretan euskaldunak identifikatzeko** bideak ezartzea, taldeen antolaketa eta eskaintza hobe bideratzeko.
- **Guztiak euskaldunak ez izan arren taldeak euskaraz funtzionatzeko** eskaintza egitea.
- **Monitore eta entrenatzaile euskaldunei prestakuntza eskaintzea** kirolaren bidez euskararen sustapena egiteko.
- Euskarazko eskaintza **ordutegi zentraletan egitea**, euskarazko hautua indartzeko.
- **Kirol praktika arrakastatsuenetan** egitea euskarazko eskaintza.

5.2.2 Euskarazko eskaintza orokorra

Eskaintza orokorrari dagokionez, **eskaintza euskaraz egiten dela baieztatzeko irizpidea izan da jarduera bakar bat euskaraz eskaintzea**. Hori aintzat hartuz, **eremu euskaldunean % 89k egiten du eskaintzaren bat euskaraz**. Eta ez dago alderik kirol elkarten eta udalen artean: elkarten % 81ek eta udalen % 81ek egiten du eskaintzaren bat euskaraz. Aintzat hartzekoa da, halaber, galdetegia erantzun duten eragileek adierazi dutela haien **monitore edo entrenatzaileen % 13k ez dakiela euskaraz**. Kopuru esanguratsua dela esan genezake, eta horrek eskaintza egiteko orduan eragina duela.

Eremu mistoan, aldiz, % 54k egiten du eskaintzaren bat euskaraz. Horrek ez du esan nahi, ordea, eskaintza euskaraz egiten duen entitate horrek dena euskaraz eskaintzen duenik. Azpimarra jarri nahi dugu honetan, kasuak banan-banan aztertuta ikusten baita **eskaintza egiten dutenek proportzio txikian egiten dutela, eta nagusiki haurrei begirako eskaintza dela euskaraz**. Hala ere, esan genezake talde bakar batean eskaintza eginagatik ere, eskaintza egiten duten horien artean **euskararekiko sentsibilitate bat badagoela, eta eskaintza zabaltzeko lanketa egiteko aukera ere egon daitekeela**. Gainera, aintzat hartzekoa da galdetegia erantzun dutenek adierazi dutela **monitore eta entrenatzaileen % 33k euskaraz dakiela. Profesional euskaldunen lan poltsa orokor**

bat eratzeko aukerak aztertu beharko lirateke, eskaintza egiteko arazoa monitore edo entrenatzaile euskaldunen falta izan ez dadin.

Azpimarratzekoa da, halaber, **eremu mistoan nagusiki udalen eskutik egiten dela euskarazko eskaintza (erantzun duten udalen % 90eak, eta elkarteen % 28k)**. Udalek egiten duten eskaintzaren harira, eztabaida taldeetan aditzera eman da **kontratazio pleguen bidez eskaintza euskaraz egiteko baldintza gehiago txertatu** beharko litzatekeela. Bestalde adierazi da bereziki haur eta gazteei begirakoa kirol eskaintza asko kirol elkarteen bidez egiten dela, eta horretan eragitea zaila dela. Hori horrela izanik, eta aintzat hartuz bereziki garrantzitsua dela haur eta gazteen artean euskararen erabilera sustatzea eskolaz kanpoko jardueretan, zentzu horretan hutsunea dagoela nabarmentzekoa da.

- Haurren eta gazteen adin tartean euskarazko eskaintza areagotzeko **proposatutako neurri guztiak baliagarriak dira eskaintza orokorrean euskara areagotzeko ere bai**.

5.3 PRESTAKUNTZA, BALIABIDEAK ETA HARREMANAK

Eskaintzan euskara sustatzeko proposatutako ekimenei lotuta, nagusia den gai bat ere mahai gainean jarri nahiko genuke: **Nafarroako Kirol Institutuaren zeregina** egindako proposamenak inplementatzeari begira. Izan ere, monitore eta entrenatzaileen **prestakuntzarekin lotutakoetan berariaz** aipatu da Kirol Institutuak horretan hartu beharreko lidergoa: bai **euskara sustatzeko prestakuntza berezitua** eskaintzeari begira, baita existitzen den ohiko **kirol prestakuntzan euskararen normalizazioaren gaia txertatzeari begira (monitore edo entrenatzaile izateko titulazioa ateratzeko ikastaroetan, esate baterako)**.

Kiroleko profesionalen prestakuntzaren alorrean, monitore eta entrenatzaileenaz gain **udaletako kirol teknikarienaz** ere hitz egin da. **Sentsibilizazio lana eta euskararen normalizazioari buruzko prestakuntza Kirol Institutuaren eskutik** egiteko proposamen zehatza egin da. Bestalde, udal mailan kirolean euskararen sustapenaren ikuspegitik egiten dena indartzeko bide emankorra izan daiteke **euskara teknikarien eta kirol teknikarien arteko elkarlana**. Eztabaida taldeetan adierazi denez, nahi baino gutxiago egiten da perspektiba duen elkarlan sakona eta iraunkorra. Hala ere, badira norabide horretan egindako **esperientziak**. **Horiek aztertu eta hedatzeko ahalegina** egin beharko litzateke. **Elkarlan hori Kirol Institututik eta Euskarabidetik ere nola erraztu edo areagotu** aztertzea emankorra izan liteke.

Eztabaida taldeetan aipatu da esperientziak trukatzeko eta elkarren berri edukitzea interesgarria dela. Ildo horretan, ez da antzeman esperientziak modu sistematikoan trukatzeko eta zailtasunei modu koordinatuan aurre egiteko egiturarik dagoenik. Eta agian, hori izan beharko luke landu beharreko bideetako bat: **koordinazio gune bat eratzea kirolean euskara sustatzeko gaia lantzeko**.

Bestalde, elkarteen ahotik **euskara sustatzeko laguntzak eskatu zaizkio administrazioari**: izan **laguntza tekniko**a (itzulpenak, euskara planetarako laguntza, prestakuntza...), zein **finantziario**a (berariazko diru-laguntzak, kirol elkarteei emandako diru-laguntza orokorrean euskaraz jardutea saritzea...). Ezaguna da Udal guztiek ez dituztela kirolean euskara sustatzeko baliabide berdinak eskaintzen. Hori aintzat hartuz, komenigarria litzateke **kirol elkarte guztiek euskara sustatzeko**

gutxieneko laguntza edo zerbitzu batzuk definitzea Administrazioaren eskutik jasotzeko: izan tokiko administrazioaren bidez, edo izan administrazio orokorraren bidez. Horretarako, interesgarria izan daiteke dagoeneko **zenbait udalek abian dituzten egitasmoak eta laguntzak aztertzea (Sakanan programa oso garatua dute), eta horiek orokortzeko bidea urratzea.**

Horretaz gain, Federazioen gaia ere sarri agertu da eztabaida taldeetan. Aditzera eman dutenez, **Federazioek, oro har, gaztelaniaz funtzionatzeko** joera handia dute. Elkartek haiengandik jasotzen dituzten baliabideak eta dituzten harremanak normalean gaztelaniaz izaten dira (hor kokatu da, besteak beste, **arbitro erdaldunen gaia**). Federazioek **elkartekiko duten irismen gaitasuna eta erreferentzialtasuna aintzat hartuz, gai hau lehentasunez jorratu beharrekoa da.** Federazioek beraiek haien komunikazioetan euskara txertatzea eskatzeaz gain (idatziz eta ahoskoan), adierazi da Federazioek beraiek egiten duten eskaintzan euskara txertatu beharra. Gai hau jorratzeko, batetik, **Nafarroako Gobernuak zer egin dezakeen aztertzeko** eskatu da. Bestetik, **elkartek Federazioetara eskaerak bideratzea** interesgarria izan daitekeela adierazi da. Azken hau egiteko eskabideak prestatzea eta hedatzea lagungarria izan daiteke, elkarteei ariketa hori arintze aldera.

Elkartek Nafarroako Gobernuarekin duten harremanari dagokionez, **eremu euskaldunean** aritzen diren elkarten artean harreman hori **gaztelaniaz egiten dutela adierazi** da eztabaida taldeetan. Horretarako arrazoi nagusia prozedura euskaraz egitean epeak luzatu edo atzeratu daitezkeela aurreikusten dutela dago. Halaber, **eremu euskaldunean** galdetegia erantzun duten elkarten **% 97k adierazi dute Nafarroako Gobernuarekin euskaraz aritzeko borondatea.** Gauzak horrela, harreman horiek euskaraz izan daitezen landu beharreko bideak aztertu beharko liriateke, elkartek azaleratu duten kezka (atzerapenarena), nola konpondu aintzat hartuta. Horrekin batera, interesgarria litzateke **Nafarroako Gobernuak lanketa egitea elkartekin jakinaraziz harreman euskaraz egin dezaketela (hizkuntza eskubideei buruzko lanketa** hemen kokatuko genuke).

Laburbilduz, hauek dira proposamenak:

- Monitore izateko ikastaroetan euskararen normalizazioa txertatu.
- Kirol jardueren bidez euskara sustatzeko berariazko prestakuntza saioak.
- Kirol teknikarientzako euskararen normalizazioari buruzko prestakuntza.
- Kirol eta euskara teknikarien arteko elkarlana sustatu.
- Koordinazio gune bat eratzea kirolean euskara nola sustatu lantzeko.
- Diru-laguntzak: itzulpenak, euskara planak...
- Laguntza teknikoa: itzulpenak, aholkularitza, prestakuntza...
- Gutxieneko laguntza eta zerbitzuak definitu eta Nafarroa osoan orokortu (abian dauden esperientziak orokortu).

- Federazioek zerbitzuak eta komunikazioak euskaraz ere emateko eragitea.
- Federazioetara eskaerak bideratzea.
- Nafarroako Gobernuarekin harremanak euskaraz egiteko bitartekoak jartzea.